ZALPENAK

Arrantzaliak

LAUAXETA

Arrantzaliaren bixitza, ezta bixitza onena. Arrizkuban dabil, noiz olatubak, uñak ...tsiko daben. Arrantza ekarten ba'dabe, etxeko gosia aldenduko da, baña sarri zer... ...ik ez, eta zer jantzirik ez.

Arrantzaliak baño bijotz obarik, eztauko iñork. Udan ixan naz Lekeitio'ko erri... ...ukunean. Ango arrantzalien gixontasuna, bijotz-ona ikustean, arrituten nintzan. Ba... ...itarrai bentaja andija egiten dautsoe arrantzaliak. Daukoena emoteko, beti gertuta ...oz. ¡Lekeitio'ko arrantzale-gastiak zelako pozagaz eskubetan eukoena, emoten eus... ...¡ Begijak be malkoz bustiten yataz arein anaitasuna gomutaten dodanian. Itxasotik ...en ziranian, liorrekuakin alkartu ta benetako democrazijan ibilten ziran.

Baña olako bijotz-ederra daukoen arrantzaliai, lagundu biar yakoe. Gaur txarto txarto dagoz arrantzaliak. Aldakuntzak eztira egin biar ostera. Kofradietan dago ...era ederrana. Kanpotik-barik etxian daukogunagaz gauzak atondu biar dira.

Arrantza asko ba'dakar, arrantzaliak eztau irebasten askorik. Zegaitik? Jauntxu ...edo iruren eskubetan dagozalako ola edo pabrika gustijak. Gitxi-ekarri edo asko... ...rri beti bardin antzean ordainduten dautsoe. Zenbat bidar batelak arrañez beterik ...si doguz, baña olaen jaubeak, begi-zorrotzakaz an ibilli dira. Larregi dagolako. ...an edo ezerez ordainduta eruan gura dabe arraña euren olara. Batzuk aldenduten ... beste kai batzubetara. Baña gaurko egunean, laster jakiten dabe jauntxubak ...ntza asko ixan dan-edo-ez. Pabrika orreik arrantzalianak ba'lira ¡zelan arteztuko ...ikez okerrok! Baten edo biren ixenean ezin imiñi leitikez ola edo pabrikak, baña arrantzaliak eratuten daben bazkunaren ixenian.

Arrantzaliak alkartu biar dabe. Orretarako Euzko-Arrantzale-Batza sortuten da... ...z. Lanak zelan egin biar dabezan, eta zenbat ordubetan. Arrantza gauzetan tra... ...kullurik barrijenak eta erarik aurreratubenak irekatsi biar yakez. Zarrai emoten ...oe zer-edo-zer baña geyago meresi dau bere bixitza gustijan itxasuan ibilli danak. ...uban ostera itxasora juan eziñik geratzen diranian, gosia kentzeko-bidiak jakin ...dira.

Sarritan eztakije itxas-gixonak non saldu leitikean, neurririk onenean, ekarri da... ...arraña. Orretarako idazkaritza edo sacretarijau bat euki biar dabe. Orain arte ...idigi irakastola bat, arrantzaliai euren arazoetan ikaskixunak emoteko.

Langilliak-eta ba'daukez euren irakastolak, eskolak, bakotxaren arluak ikasteko. ...rantzalian lanak be gixon-burubakuak barik argijak eskatuten dauz. Aitagandik ...ten ba'dabe, ondo, ezpabe or-konpon. Onela barriz ezin jarraitu geinke. Ekatxa... ...altzuan ezin itxi geinkez geure anayak, ezta orain eun urte arrantza-egiten eben ...duan aurrera be jarraitu dagijela.

Tamalez aiztuta itxiten doguz arrantzaliak. Auteskundiak datorzan egunetan, ...ntza andijak egiten doguz ostera. Promesak orduban. Baña auteskunde edo bota... ...o aurrian egiten dira abintzak betetuko, urte gustija dago.

Orain-arte ezpadogu ezer egin, aurrerantzian ekin biarko dogu. Zozolistuak or ...nduten ezpadautsoegu, alperrik ixango dira abertzaletasun-didarrak. Langilliak ...nekua jaten dau ta arrantzaliak be egunekua biar dau.

Dagonian gustija gastetan ba-daki arrantzaliak eta gastau eztagijan, beste batz ...ijenak buru-jarri biar dira. Gaurko laugaz, bijarko bata egin geinke. Txindija ...rratuten irakatsi biar yako.

Arrantzaliaren gogo-onari eutsi dajogun. Beraz gixon zintzua dozu, baña geuk ...urarik ezpadautsogu, geure areyo gustijakin juango da. Belu danian zarata andijak ...go doguz. Eta zurtu gadixan lenago.

Egunekua

ROJA'TAR ERRIKARTA

...dzle au be euzkelduna da, Nabarra er... ..., Bera Bidaso ibai-ertzekua da, ba, ...ikarta.

...to Ulazia'tar Pantzeska idazliari ukutu ...tson, gaur, ostera, Baroja'tar Errikar... ...

...rek "El Liberal,'ian idazten dau; onek ...Voz de Guipúzcoa,'n. Beraz bijak dira ... bijak anayak, bijak eskerrak, euren ...ari irri egiñagaz etxeko tellatura arrika ...ubenak bijak.

...rikarta napartarra dogu, ba, Bera'ko se... ...idazle irrituba, arin minduten dan gi... ...bestek diñotsen egirik entzun eziñekua, ...rijan dagitsen zirikadarik jasan-eziñe... ...; baña basurde zauritubaren antzera ...zabalduta nabarmenkarija galantak ...ten dakijana.

...ztu dogun "La Voz de Gipúzcoa,'n ...ten daunez, Donostia'ko "El Día" iz... ...ringijan "Aitzol" idazle argijak esan ...tsan zeozer irakurri dau, ta antza da... ...er, "Aitzol,'en eztenkadeak Errikarta'... ...zaurijen bat barriztu be bai, Errota... ...rreko asto-auldubaren antzera, zauri... ...ren arrantza itun-gangarra dagi-ta. Be... ...rrantzetan, euzkotarrok, basatitzat etsi... ...gauz, eta gu euzkotarrok basati biur... ...gaz, oron aurretik berak lexaratu biar... ...daunagaz ezta gogoratu be egin; eguz... ...begira dala jaurtiten dauzan txistu zi... ...gustijak barriz atzera bere abora ya... ...¡Gixagaxua! Baña jakintsuba ei da, ...ntsuba!...

...rikarta'ren aita be idazlia ei zan, oler... ...bai antza, aren euzkerazko oler... ...bat, Errikarta'k diñonez, aitaturiko "Día" izparringijan "Aitzol" jaunak ...ldu ei dau-ta.

...Aitzol,'ek baña, geure euzkera ederra... ...onarren Baroja olerkarijak erabillan ...ntz (ortografi) itxusija kenduta be... ...euzkel-zuzkidatzez apainduta argi... ...dauz Errikarta'ren aita zanaren oler... ...Semiak baña—¡eskar txarreko semia ...ero Errikarta!—, aitearen utsak zu... ...dautsazalako eskarrona erakutsi bia... ...¿ba-dakixube zer erantzuten daben? ...aiteak zuzkidazkera onegaz ikusi ixan ...ez bere bertsuak, "¡k... kas betiak!" ...ego ebala.

...Alberto Errikarta, ederto!... Zu lako ja... ...ak olantxe itz egiten dabe beti..., ...ona k...k...z betetan yake.

...eriala beste ipuin barragarri au edestu... ...dagiku Errikarta'k.

...ere aitea "injiñerua" ei zan, "miñeta... ...ñiñerua". Eta bein idazkola aurrian ...idazkolearen ate-buruban ainbeste ele... ...izkuntzetara idatziriko idazkun bat ...ei eban.

...roja zarra irakurten zaletxuba ixan ...idazkun areik irakurten asi ei zan, ...ta irakurri be: gazteleraz, pantzeraz, ...ingleraz, italeraz, doizkeraz eta euz... ...

...rkurtia amaitu ebanian baña, Baroja ...ñerak" gelduta esan ei eban: "¡Ca... ...ña, qué rareza!; lo entiendo en todos ...idiomas menos en vascuence".

...Baroja zarrak bakankeri au esana... ...euzkerarik ezekijala autortu eban. ...semiak aitak esan eban bakankerija... ...eretxita berresaten dausku, eta edes... ...onegaz jakintsuben lilibitxiz burestun... ...dalkuan, kakatzan sartuta geratu; ...aiteren ixen ona lorrinduta itxi.

...Euzkogunez baña, oneik Barojatarrok, ...ereari ta euzko-gauzai irri egiteko-ta ...ik erruak dabez, euron aitea be Erri... ...ik diñoskunez, ba, euzkereari irri egi... ...ñiña zan.

...Semiok baña irri ezeze ¡arrika be egi... ...dautse, ta txakurrak ba-lira- aginka ...egingo leuskijoe!

neskiaren begijak negar-malkoz ezotu ziran. Ume mosuaren laztan maitekorrak eta aingeruaren berba garbi ta ederrak, bijotza urtu eutsoen...

Urrengo igandian, neskatillia, erriko txaunburuari baimena eskatuta, umetxuari Kristiñau-Ikasbidia irakasten asi zan.

Jaungoikuak, mutikuaren ezpanetan ipini eban indar berezijak bijotza gozaro igituta, gauzarik gurenetara bultzatu eban.

¡Zorijoneko mosuau!

MAÑARIKO.

EUZKO IKASBIDEA

Zenbatxe aldiz entzun ote dogu, guganatu izan zaizkigun euzko-abertzaliengandik:

"Gure Irakasle Sabin'aren ikasbideak, erriz erri, basetxez-basetxe zabaldu al izateko, ezertxo ere ez daukagu".

Gaur beintzat bai-daukagu ba.

Ona emen "EUZKO-IKASBIDEA", guziok antzin-antziñetik dazagun "Ami Vasco", euzkeraz. Ainbeste ta ainbeste euzkotar bide oneratu ditun "Ami Vasco", euzkeraz, geure-geurea dan elez, Euzko-Abendaren-Elez.

GIPUZKO - BURU - BATZARRAK euzkeraldu ta argitaldu du, idaztitxe eder apain batean, "EUZKO-IKASBIDEA"-ri ta Euzkerari dagokien eraz, izki garbi ederraz, ingi-zuri-leunean, azal-apañez jantzia, barruz Arana-Goiri'tar Sabiñ'aren eta Ibero Aba Buruñurdunaren argazki txukunez apainduba. .. ..

Ona emen, ba, Euzkadi ziar Aberriaren uri-baserri ta azken-zoko guzietaraño Arana-Goiri Ezilkorraren Irakaskintzak errazki eldu-arazteko izan leiken biderik egokienetako bat.

"EUZKO-IKASBIDEA" (Ami Vasco, euzkeraz) gure azpaldiko ametsa, egileak ezpañeraz idatzi zuan idaztiño aberkoya, EUZKERAZ.

Norbaitek esango ba'ligu Uri-Buru-Batzarren bat edo, Batzokiren bat edo, Mendigoxale edo Emakume-Abertzale - Batzaren bat gelditu bayetz "EUZKO - IKASBIDE" pila bat erosi gabe, iñolaz ez giñoke sinistuko.

Berrogetamarka, eunka, basteunka, aneika eskatu dizkigutenak ere, baiditugu, dagonekoz.

Eskatu, bada, zuk ere, ene irakurle orrek, eta zure erriko Uri-Buru-Batza'ri ta Alderkide-Bazkun oroeri be eskatuarizi, oraindik bearkun ori bete gabe ba'leude.

Ona, nora eskatu bear dezun:

GIPUZKO - BURU - BATZARRA (Zabalkunde-Batzordea).

Plaza Alameda, 7, 3.°—Donostia.

50'tik	249'raño	16	xentimo
250'tik	999'raño	15....	—
1000'tik	2000'raño	14	—
2000'tik	gora	13	—

J. ELGEA.

SUSCRIPCION PRO - UGARRITZA

A LOS BATZOKIS Y DEMAS ENTIDADES PATRIOTAS

A todos los Batzokis y entidades nacionalistas que recaudaron cantidades con destino a la suscripción en favor del compatriota Ugarritza y no hicieron ya entrega de las mismas, se ruega las remitan a la mayor brevedad a esta Comisión, nombrada por B.-B.-B. para este objeto y que tiene su residencia en Correo, 17, segundo Bilbao.

Comisión Pro-nacionalistas.

Cantidades recibidas en esta Comisión.:

	Ptas.
Suma anterior	26.516,40
Del Batzoki de Matiko	504,55
Suma total	27.020,95

Detalle de lo recaudado en Matiko

Batzoki de Matiko, 100 pesetas; Emakume Abertzale-Batza, 100; Gregorio de Garai, 7; unas religiosas, 25; Jaun de Bearan-Salaberri, 5; Valentina de Gabiola, 2; Juan rai, 7; unas religiosas, 25; Juan de Bearan y Gabiola, 2; Dolores de Bearan y Gabiola, 2; Jesús de Aranguren, 5; Valentina de Aldekoa Pineda, 3; María R. Pineda y Aldekoa, 1; María L. Pineda y Aldekoa, 1; Ramona de Kamiruaga, 5; Magdalena de Kamiruaga, 1,50; Eusebia de Kamiruaga, 2; Rosa de Kamiruaga, 5; Presentación de Kamiruaga, 2; Maritxu de Kamiruaga, 2; Maritxu de Agorria y Kamiruaga, 2; Ernesto García, 1; Benigno de Ugalde, 2; Emilio de Anthoninsen, 5; Pedro de Sarasola, 10; Florentino Martín, 1; Pablo Quintana, 2; Daniel Ramos, 1; Paulino Muñoz, 0,50; Ismael Corral, 1; Ambrosio de Larrazabal, 1; Luis de Barandika, 0,75; Miguel Valdivielso, 1; Pedro de Aurrekoetxea, 1; un nacionalista, 0,50; Juan de Oyarzabal, 1; Victoriana de Bilbao, 3; Francisco Muñoz y Muxika, 2; Gregorio de Etxebarria, 2; José de Barinaga, 0,30; señor Jiménez, 1; Julián de Busturia Lopategi, 5; Dionisia Lanbarri Busturia, 5; Julián de Busturia Lanbarri, 5; María de Busturia Lanbarri, 1; Dominga de Busturia Lanbarri, 1; Valentín de Garmendia, 2; señor Trabudua, 25; familia de Arrieta, 10; Salomé de Sarasola, 5; Félix de Gabiola, 2; Jerónimo Pineda, 2,50; Prudencio de Ituarte, 2; Francisco Busturia Lanbarri, 1; Eugenio Busturia Lanbarri, 1; José L. Busturia Lanbarri, 1; Elías de Gorostizaga, 2; Francisco Ribalta, 2; José de Atutxa, 1; Daniel de Errekatxo Basterretxe, 1; María L. idem, 1; Ignacio idem, 1; Juan José de Arostegi, 5; Emilio Casado, 1,50; Elías de Telleria, 2; Serapio Llamazares, 5; Fernando de Bilbao, 1; Severina de Ormaetxebarria, 1; María de idem, 1; José Luis de Galarza, 15; Román de Arostegi, 5; viuda de Urrutia, 2; Esteban de Iñurrategi, 5; Elvira Matia, 3; Pedro de Bilbao y Urrutia, 5; Eduardo de Itxazo, 1; Cecilio de Aizpuru, 2; señor Arbe, 2; José Luis de Jauregi, 2; Eduardo de Gabiola, 5; Jesús de Elizalde, 5; Ormaetxebarria'tar Errikarta, 1; Ormaetxebarria'tar Eukeni, 1; Ormaetxemarria'tar Libe, 1; José de Balsebre, 2; Carlos de Bernaola, 1; Ricardo Nieva, 2; Sebastián de Atuaga, 3; Marcos de Basabe, 6; un nacionalista, 2; Cirilo de Urrutia, 10; María Luisa de Bidaurreta, 1; Alberto de Uzkanga, 5; Antonio Sostre, 1; Juan de Barea, 1; Hilario de Gabiola, 2; Emiliano de Umeran, 3; familia de Egaña, 50; Miguel de Bárcena, 2; José M. Mauleon, 1.

Zorijoneko mosua

Igazitako udabarrijan, neskatilla bi auza ume batzukaz arratsaldia igaroten mendira juan ziran. Neskato-mutikuak, basuan ederto jolastu ostian, landatxu bateko zugatz-arte eder kerizpetsuan atsedentzen jarri ziran. Umiak, ipuin-zale beti diranez, neska areitako bateri ipuiñ bat edestuteko arren egin eutsoen.

Neskiak, ipuintxo bat edestuaz, umetxueri euren gurari begikua asetu ostian, maitero ta irribarrez esan eutsoen.

—Ene maitetxuok; orain, Josukisto gure Jauna'ren bizitzazaz zerbait entzun gura dozue?

—Bai, beste edozer baño pozago entzungo dogu—neskato mutikuak erantzun eutsoen.

Orduban, neskiak, Kisto'ren "Azken-Aparija,,'tzaz itz egin eutsoen. Maitasun andijaren eskutukijatzaz, umetxuen adimenak errez ulertzeko moduko eran berbalditxu bat egin eban. Danak yakozan adi; baña, euren artian, Jon Paul sei urtedun mutiko zolija, begi ta belarri adijen yakon.

Neskatilliak berbalditxua amaitziaz batera, Jon Paul mutikua beriala zutundu zan; eta neskiari esku bijakaz samatik elduta mosu bat emonaz, esan eutson.

—Nik zuri asko gura dautsut.

—Asko? Zenbat gura daustak ba?—itandu eutson.

—Mille baño askozaz geyago. Pagoak orritan aña; landatxu onetan bedarretan aña...

Erantzuera polit onegaz, an egozan guztijak barrerik asko egin eben. Eta barre asko egin ondoren, esan eutson.

—¡Mutiko! Txikija azan arren bijotz andiduna az. Orren-beste zergaitik gura daustak ba?

—Zeruko gauzak kontau dozuzalako. Jesus'en gauzak esan dozuzalako.

Umetxo baten abotik ain berba ederrak entzutian, danak itzalez ixildu ziran. Eta

Uarra.—Biar-bada, norbaitek esango dau, idaz-lantxu au izparringi baterako baño aldizkingi baterako egokija...ua da... ...ikusirik gaur-egunian, umetxueri Kistiñau-Ikasbidia irakastia gauzarik bearrekuena dala, ne... ...asmua artu dot. Zerbait jazoa be bada ta.

ERRIJETATIK

GALDAKANO

BATZOKI'KO ITZALDIJAK

Igaroko larunbat gabean itz egin eben emengo Jel-Batzokijan Asua'tar Andoni ("Ogoñope,,'k) eta Alexandre'tar Josu'k, euran aurkezpena egiñik Batzokiko lendakari Zabala jaunak.

Lenengo itz egin eban "Ogoñope" gure adizkide maite ta euzkel-idazle ospetsuba baxen izlari bikañak, Bizkai'ko euzkera txukun eta garbijan ederto atzaldu ebazan Euzko-Abertzaletasunari yagokozan gauza sakon eta jakingarrijak, Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra goraldubaz ta Arana-Goiri'tar Sabin maitiaren lan andijak aintzaldubaz. Oso txalotuba ixan zan "Ogoñope" argijaren ixaldi ederra.

Urrengo itz egin eban españeraz Alexandre'tar Josu'k, eta onek be gauza entzungarri ta onurakorrak esan euskuzan. Onek be txalo asko ixan eban.

ARANA-GOIRI'REN ARGAZKIJAK

Illa onen 25'an dogu Arana-Goiri'tar Sabin andijaren erijotza-urteurrena, ta gure irakasle maitiaren gomutakitxat bere argazki ederra etxe abertzale bakotxean jartzia egokija litxake egun ori ospatzeko. Ori dala-ta, ba, Galdakano'ko abertzale maitiai dei egiten dautsagube, Sabin kutunaren argazkijak erosi dagijiezala urte-urren onetan. Neuk saltzen dodaz argazkijak, eta eskatu, ba, gura dauzanak.

LAUKINITZ'GO "APERRE,,'RI

Oso atsegiñaz irakurri neban igandeko EUZKADI'n agertu zan zeure idazkitxu polita; asko poztu nintzan neure jayoterri begikuaren ixena gure izparringijan ikustiaz. "Aperre" maitia, gustiz ederto idaztten dozu, ta orren polito dakixun ezkero neure gurarija da sarritxu idatzi dagixula aurrerantzian. Egin, ba, alegiña, zeuk al dozuna idazten, eta orrelan atsegiña emongo dautsazu "Lauaxeta" geure erritar argi ta zintzuari be.

"KARMEN'GO AMAREN ESKU-LIBURUA"

Neure eskubetara eldu da "Karmen'go Amaren Esku-Liburua" deritxon euzkerazko jaupa-idazti eder ta begi-begiko au, karmeldar Aita Doroteo agurgarrijak egiña. Idazti au ondo ikusi dot, euzkera errazà ta polita dau. Mami andija dauko idazti onek, jaupa deunaz gañera dakaz beste gauza asko: Karmen'go Ama'ri ta Bere gutun edo eskapularijuari yagokoezan oneraspenak, Praga'ko Josu Umetxubarenak, Gurutze-Bidia, Josu'ren Bijotzaren bederatzi barikubak, Joseba Deuna'ren, Ama Teresa ta Teresatxu Deuna'ren oneraspenak, Bederatzi-urrenak, Txadon-abestijak eta abar. Idazti eder au euzkeldun gustijak erosi ta erabilli biar leukiena da.

"Karmen'go Amaren Esku-Liburua,,'ren egille Aita Doroteo agurgarrijari geure zorijonak bere lan ain goragarrijagaitik, baita geure agur bijotzekua "Karmen'go Argia,,'ri be.

BESTE IDAZTITXU BAT

Baita ikusi dot Aita Arriandiaga M. B. S. agurgarrijak orain atera daun idaztiñotxu barrija be, bere ixena da "Umiak Autortuten eta Jaunartuten". Idaztiñotxu au txikija da, baña umetxu euzkeldunentzat egokija ta onurakorra. Arriandiaga'ren idaztiñotxu onek Bizkai'ko euzkera leun, garbi, aberats eta eder-ederra dau.

¿Alakoren baten ondiño Arriandiaga Aba maitiak ez-ete-dausku egingo Jaupa-Idazti edo Esku-Liburu lodi, andi ta oso-oso bat Bizkaya'ko euzkera garbi ta eder-ederrean? Nik bai-dot beintzat itxaropena ori ikustekо. Geure zorijon agurra, ba, bere euzkel-lan goragarrijakaitik Arriandiaga Aita agurgarrijari be.

ALGORRI.

EIBAR

EZKERTARREN ITZEIKIXUNA

Igandian euki ei-eben, ezkertarok itzeikixuna, Geu ezkiñian juan. ¡Eta zetara astokerijak entzutera! An ixan zan lagun batek, edestu euskun izlariak ziran, A. de la Villa, Murciano bat, Cartagena'ko beste ren bat, andaluz'en bat ere bai, ba andaluz mintzatzen ei zan. Abar eta abar. (¡A ze "regimentua" euzkotarrok zuzentzeko!)

Neurribako amaikatxo astokeri jaurti biar eben, baña geuri barre-algara galantak egin dauskus edestu eben jazokun batek.

Euretatiko izlaribat, De Francisco ei zan, eta onek esan ei-eutsen euren bizarretan, Jardun lartxo egiten ebela elixara uskurtza ren gaiñ "radical-socialistak"-eta obe leukiela jardun gutxiagogaz, elixetara juan-etorri gutxiago egitia, eurak "zozolistuok" egiten daben-lez.

Eta lagun onek iñoskuan, arentzat izango zala, izlari onek areitariko bateron-bati, "Domiña" edo "ezkuplarijo,,'ren bat ikusi izango eutsolako barrenean.

Amaikatxo ezta-baida edo "comentarijo" izan biar ziran "tabernicoletan", zirikada au zala-ta-ez.

E.-A.-B.'KUAK

Geure abertzale emakumiok gogor ari dira lanian aberri aldez. Eibar'ren, Arrasaten, Bermeo'n, Motriko'n eta beste askotan euron itzeikixun mamintsuak ozo pozik eta atsegintsu entzunak ixan-biar ixan dira.

Azkenengo Kareaga'tar Eskerne neskatillerden eta argijak igandian euki eban gurendiagaz, Elorrio'tik poz-pozik biurtu ziran ara juan ziran abertzaleak.

Gurenda aundia izan dira Elorrio'ko E.-A.-B.'ak. eraldutako jayok.

Beyon deizuela aberriaren onerako.

ANTONTXU.

PASAJE SAN PEDRO

Agur beroa zeuri, "Lauaxeta" jauna EUZKADI izparringi orretan toki pixka bat ez al'zait uts-egingo. Bildurrik egon naiz orain arte zeuri eskabide au egiteko, baña gizon jatorra zerana, ikusi det, eta emen nator poz-pozik. Eskerrikasko.

ARRANTZALEAK

Uri ontako arrantzale-euzkeldunak ba'dirudi esnatu dirala. Euzko-Arrantzale-Batza sortua izan bear du n... bait... eltzeko ordua, ba'zan mutillak. ¡Amaika estenkada artu dezue!

¡ERIOTZA!

Illa onen 14'garrenian, Jaunak bereganatu du, Uri-Buru-Batzarreko lendakari dan, Badiola'tar Joseba'ren ama. (G. B.). Nere tamal-agurra artu zazu, adizkide.

TXIRLA'RI

Poz-andi batekin irakurri nuan zure erantzuna. Nik ere, nere-aldiz, zerbaitxo erantxu nai nitzuke. Esaten dirazu, alegiña eginagaitik, nere azterrenik ezin dezula atera. Nunbaiten jakin dezu ba "Ondartxu,'ko arkatxetan izaten naizela. Ez ote dakizu neronek baño obeki, nor naizen?

"Ondartxu,,'ko arkatxetan, sulo ederrak dituk, eta lengo egunetako giroan ederki negoan bertan. Batzoki berria egitean, alkarrekin izango gaituk.

E.-A.-B.

Emakumeak ekin - aldi gogorra duta. "Marcha" ontan edozein jartzen da euren aurrean, 116 bazkide dira gustitan. Gizakumeak baño indar geyago dute. Bejon daizuela, emakumeok, eta jator jarrai.

SAGARDUA

Sagarduak aitatu gabe, eznuke amaitu idazki au. Sagardotegietako kupelak bete beteak daude. Amaika sakel-eder beteko dira aurten "Mirasol,,'ko basetxean. Orretarako arain puxka bat nai litzake, noski...

"Lauaxeta", zuk ere atiak zabal-zabalik dituzu gero. Etorri nai dezunean eta alkarrekin "kaxuela" bat garbituko degu.

TXORIKUME.

Uarra.—Ederki zegok, laister ixango nuk uri ortan, sagardua edan eta arraña jaten. Sabel-andija dut eta gertau biarko dok askotan ere asko. "Txirla" "kaxuela,,'n jan al'dezute? Ixil-xamar dago. Agur adizkide ona, Jatorran nazen, ezdakit, baña abertzaliai arrera ona egiten ikasija naiz. Anayai besarkada bana ematen diet. Agur.—Lauaxeta.

ZARAUTZ

ANTZEZLARIAK

Emeko Jel-Batzokijan batu ziran aurreko astean eta erabaki zuten antzerkijaya antolatzea. Ortarako emakumiak duten bazkun ederrean ikasten asi biar dira. Bide ortatik aurrera gaste-lirañok.

DEMA-JOKOA

Iri-demak zirala-ta, makiñabat baserritar batez. Lau iri-alde i...-alde uztartu ziranb batez. Lau iri-alde uztartu ziran. Gustiak lan-ederra egin zuten. Lenengo saria, Aya'ko Armendi'ra juan zan.

MARTIN DEUNA

Martin deunaren jayak zirala-ta, Urdaneta ballarako baserritarrak, euren asto ta gurdi gustiakaz, ardatzak beteta, emen igaro ziran geure txaide-zear, txistu-soñutan. Ori dek, ori gauzaren eramana.

NASKALDIA

Aprika'n gudaritza egin ondoren, Saazobida gastea emen arkitzen da. America alderuntz juan da Berazadi'tar Koldobika. Ondo ibilli. Treku'tar Imanol, abertzale zintzua, gaxorik arkitzen da. Azkar osatu.

E.-A.-B.

Igazi zan igandez batzokian ixan zuten beren batzarra ta arteskaribatza, era onetan izentau zuten:

Lendakari, Barrena'tar Miren Arantzazu; orde, Berazadi'tar Itxaropen; idazkari, Izeta'tar Miren; orde, Arregi'tar Abeline; dirutzain, Moulian'dar Koldobike; Batzar-lagun, Murua'tar Bitore, Agirrezabal'dar Imanole, Etxabe'tar Jone, Agirre'tar Arrentza. Orain aurrera jarraitu zeben lanetan.

"ARITZA,,'RI

Zure idazkiak poztu ninduban, lagun bat dedalako. Uste det "Lauaxeta" argiak toki pixka bat egingo digula, askoren biarrik eztegulako. Baita ere ziur nago gure okerrak zuzenduko ditula.

BASARRI.

Uarra.—Nai-dezutena egiteko emen naiz. Zeben zai-nago beti, euzko-idazliak, aberrijaren gudari onenak diralako. Izkuntza landuten dezute, euzkera goratu.—Lauaxeta.

ERREZIL

ERRIKO JAYAK

Emen oitura dan erako aunditasunarekin, ospatu ditugu gure zaindari dan Martin deunaren jayak: elezkizun ederrak, izlari ain-bikain dan Zabaleta jaunak gustiz ederto azalduzun zein bearrekua degun, gaurko egunetan batez ere, alkarganako maitasun-benetakua. Ain bearrekua degun maitasun au azaldu zigun euskera eder eta garbian, gustion biotzak etxik poztuaz. ¡Jaun an baidale izlari sakon eta euzkaldun benetua! Gure agurra berari ete gure txaunburu jaunari izlari ain bikaña aurtengo jayetan ekarri digulako.

EBIA UGARI

Eguraldi txarrak eduki ditugu egun anetan eta irugarren egunez bakarrik esateko eran, jolasketak izan ditugu. Arri jotzalliak beintzat gure baserritarrak oso poztu zituzten. Osteruntzian dantza pixkabat eta kito. Datorren urtian ia izaten degun egualdiakin zori obia. Alaxen naidakiola Goi-Jaunari.

NASKALDIA

Jayek dirala-ta biziko lagunez aurtengo onetan beintzat, agurtu ditugu. Beste askoren astian, izlari bikaiñ eta Jeltzale benetakua dan Agirre'tar Toma bere emaztearekin.

Erbestear eta errikoseme beren txoko maitea etorri diranai, danari esaten diegu: **ez aztu** guzaz eta urrengo arte.

TORREN IGANDIA

Nork ezdaki datorren igandian zer egun dan? gure txadon nagusiko abeslariak beñepein bai. Entzun degunez aurtengo onetan ere gure Santi aundie txapeldun gelditzeko ustian izan biardu. Irurogei urtera urren...ten eida bañen betj "tinore di primisimo ...rtelo". Jazi ortan lagun zar.

TALO.

ZESTUA'TIK

Iduritzen zait neuretzako ere eldu dala euzkeraz lan pizkat egiteko ordua. Salla da baña danian azitzia izaten da gogorrena. Asi naizela uste det, eta gaizki asi banaiz asketzi, ezta arritzekua; zeñek ez du lenengo aldian, nor berak ez nai izanda ere, uts bat egiten? Asko zerate euzkera bigun, eztitsu eta maitatian Zestua'ko berriak idazten dituzutenak; nik ere lagundu egin nai dizuet lan orretan. Goraintziak irakurle euzkaltzaleai; gorantziak idazliai. Zuekin bat egin da euzkera eta Euzkalerriaren alde lan egin nai nuke idazkai aben bitartez. Zestua'ko Euzko-Etxea azkeneko egunetan egin dituen lanakin oso ederki apainduta gelditu dala diote; iñon ez bezela, ikusgarria dala. Alaxe arkitu omen zuten Emakume-Abertzaleak bazkide gustien batzarra egin zutenian. Beste erriyetakuak ere sayatu zaitezte emenguak añian eukitzen; emenguak ere gero eta aundiagoko asmoak dauzkate. Ez dira amets utzakin gelditzen diranak; naiz aundiyetakuak eta eziñezkoak izan; bere eginkizunak ala abesten dute eta oso ederki adierazitzera ematen dute. Beren Batzar eta gañuntzeko gauzetako etxia euki arren, artu dute gañera Kistiñeko Arroztegi'ko Akeit-Antzoki lanak egiteko eta bertan izango dira asteroko itzaldiak jakin dutenez. Datorren larunbatean ixango da erri ontan lenbiziko itzaldia. Egun ontan itz egingo dute Lasa eta Altzeta jaunak. Lasa jaunak itz egingo du Euzko-Langillen atzalgai bat artuaz. Ez dago ezer esan biarrik Altzeta jaunagandik ere. Ezagunak dira. Alai etorri zaitezte Arrua'kuak eta Aizarna'kuak, Iraeta'kuak eta Lasa'kuak, mendikuak eta kalekuak aitzera euzkaldun abertzale bikaiñ abei, aben bitartez Aberriya'k itz egingo dizue. Etorri danok entzutera eta ikastera aberriak erakutsi nai dizkizuen ikaskayak. Urren arte.

ARZAIA.

ETXANO

PIÑU-ARTEKO MIXERRARI

Egun askotxu da zure idazki polita EUZKADI'n irakurri nebala. Besteren bat be oingo gertauta ixango dozulakuan nago. Ez egon geldi. Umiak oñez, ibillijaz-ibijaz ikasten dabe; geuk be idazten olantxe bardin; idatzijaz-idatzijaz, asko ikasi geinke. Ekin, ba, gogor, aizkide.

SABIN'EN OPAZKO MEZA -ABESTIJAK IKASTEN

Ozte aundijak diardu, gixon ta emakume, eta berotasunk aundijenian jardun be, Zorrontza'ko Euzko-Gastedija'ren aretuan Sabin irakasliaren aldezko Mesa-abestijak ikasten. Ikastaldi oneitan Euzkerea parra--parra, agua-betian danak darabillela pozarren uartu dogu. Tira, aberkide maite-maitiok, euzkeldunak euzkeraz itz - egiteko ekandu ezin-ederragoau bein-betiko geugandu daigun. Batenbatzui euzkeraz jardutia aldatz-gora ixango yakena ba-dakit; baña asikerea ixaten da gatxena, gero bein lotsea ta bildurra jaurtin-ezkero, igarri-barik, berez-berez oituko dira. Gañera, neke apurren bat orretan ba-da, be, neke ori Jaungoikua ta Aberrijarren poz-pozik eruango dabela uste dot. ¡Aurrera!

ETXANO-BURU-BATZARRA'RI

¿Noz batuko ete gara Etxano'ko alderdikidiok? Gauzatxu batzuk, ba-dagoz, ba, erabagiteko, ta ondo litzake batzarra albait lasterren egitia. ¿Noz egokijen? ¿Larunbat gaubian? ¿Igande-arratsaldian? Datorren larunbat-gaba egoki-egokija litzakela uste dot. Gau orretantxe, ba, Zabala'tar Josu abertzale sutsubak itzaldija egiteko dau Gastedija'ren aretuan; Etxano'ko abertzale gustijak itxaldi orretara etorriko dirala uste dot: orra or, ba, geure batzartxuba egiteko era ederra. Baña urriñekoentzat-eta berandutxubegi eretxi - ezkero igande-arratsalderako itxi ta be bardin da. Etxano-Buru-Batzarrak esan beisku.

EREITZALLE.

BILBAO-BAKIO-BILBAO

Igazi dan igandian urten genduban Bilbao onetako ur Euzko-Gastedi'tik Alvarez' tar Edorta, Bilbao'tar Kepa, Biteri'tar Bingen ete neuk tarranta baten juateko Bakio'ra. Arunzkuan Biteri Mungia'n itxi ta, Biteri'k Txori-Erri'ko uri nagusijan ba itzaldi bat, itzaldi alperkoi bat egin biar eban, geuk be Bakio'n beste bana egin biar genduban legez.

Begoña aldeko Domeka Deuna mendigauetik Derio'rantz goyazala, ezirijaren zaparrada galautak bazirau, eta Sondika, Derio ta Asua'ko ingurubak eta sallak urez bete-beterik eguazan.

Baña aurrera jarraitu ta Mungiran'za jazten goyazala, ikusi genduban itxasuaren antzera ango zelai gaztijak busti eginda.

Sartu giñau Euzko-Gastedijan Biteri'ri iz batzuk entzun gurarik baña ezin ixan genduban, ba idijen indar neurketa eguan ordu atan eta bera amaitu arte etsau asi biar itzaldirik, beragaitik ba ezgenduban itxaron.

Alvarez'tar Edorta'k egin eban lenengo itzaldija erderaz eta ederto egin be.

Gero asi nintzan ni iñoz baño gogotsubago eta ekiñaldi baten ondoren itxi neutson tokija eta itza Bilbao'tar Kepari.

Onek, beti ...., bere ixakera da olakotxia ta, ekin eutson gogor eta ondo azaldu be bai abertzaletasunaren bidia, Sabin'ek zabal-zabal jarri euskuna.

Baita be azaldu eban polito-polito Enderri eta Lateri'jen aldia.

¡Aupa Kepa! Ainbat eta ainbat txalu entzun senduzau Bakio'ra eta jarrai orrelaxe aurrerantzian kokolotuta egon barik eta ikusiko dozu zelako igaldi ederrak ekarriko dozuzan Euzko Alderdi Jeltzale'ra.

Kepa'k amaitu ebanian, barriro be ekin neutzon neuk au egoazan gastiai, mutil eta emakumiai, eta gero, gustijok sutunik jarrita, itzaltasunik aundijenian, abestu genduban Euzko Abendaren Ereserkiia.

Poz-pozik gelditu ziran bakiotar abertzaliak eta geu be bai eurak emon euzkubau makallu ederra jan gendubanian.

Onuzkuban, Mungia'ko urak ,bitxabaleraño eldubak egozan eta beste barik eldu giñau Bilbao'ra illuntzeko zortzi ta laurenak inguruban.

ARTIBAI.

AZPEITI

IGANDIAN

"